OKONDO

Izenak baino gehiago

Más que nombres



cularmente en invierno, una especie de ma-
rea de agua muy turbia y gruesa, que se
cree tener comunicacion con la barra de
Portugalete, distante 3 leguas y media.

mareazulo

Ugalde auzoan haitzulo bat dago, Mareazulo izenekoa, bereziki interesgarria dena. Aldian-aldian, ur emari itzel handia irteten da bere barrenetik, gorantz, presio eta burrunba handiz, beheragoko erreketako urak nabariki astinduz. Herrikoen ustez, uraren irtete horrek zerikusia du itsasgorekin. Horrela jaso zen fenomeno ikusgarri hau Okondori buruz argitaratutako berrietan: "...hay un arroyuelo que sale de una caverna (...) en el cual se experimenta, particularmente en invierno, una especie de marea de agua muy turbia y gruesa, que se cree tener comunicación con la barra de Portugalete, distante tres leguas y media" (1802) edo "...una especie de marea en la que el agua sale muy turbia, como si se sintiese la influencia del flujo y reflujo del mar Cantábrico" (1910). Egun ere, "marea" esaten zaio zulotik noizbait irteten den ur handiari.

Existe en el barrio de Ugalde una extraña cueva conocida como Mareazulo, 'el agujero de las mareas'. Ocasionalmente surge de su interior un gran chorro de agua, hacia arriba, con gran presión y estruendo, aumentando el cauce de los regatos inferiores. Según creencia popular, tiene relación con las mareas del mar. Así se constató en noticias referidas a Okondo: "...hay un arroyuelo que sale de una caverna (...) en el cual se experimenta, particularmente en invierno, una especie de marea de agua muy turbia y gruesa, que se cree tener comunicación con la barra de Portugalete, distante tres leguas y media" (1802) o "...una especie de marea en la que el agua sale muy turbia, como si se sintiese la influencia del flujo y reflujo del mar Cantábrico" (1910). Aún hoy, sigue llamándose "marea" al chorro de agua que en ocasiones emerge de allí.





aretxarro

Aretxarro erreka-zuloan eta Mareazulo harpetik gorago, haitzulo bitxi bat dago, zenbaitetan Mareazulo, Mariazulo edo Marizulo okerreko izenekin ere ezagutzera eman dena, hortik oso urruti ez dagoen sifoi-haitzulo ezagunaren izenarekin nahastuta.
Hara hurbildu zen 1930 urtean J. M. Barandiaran antropologoa, Okondoko udal idazkari eta bestelakoen laguntzarekin. Bertan buru-hezur bat aurkitu zuten, beste hezur batzuekin batera. Apaiz arkeologoaren esanetan, Neolito garaiaren amaierako hilobiratze bati zegokion. Hilabete geroago, Laudioko Epaitegiak eskatu zituen gizaki-aztarna horiek, edozelako hildakoarenak izan zitezkeelakoan. Behin gaizki-ulertua argituta, buru-hezur ospetsua Gasteizera eraman zen. Egun, galduta dago.

En el barranco de Aretxarro, y algo más arriba de la gruta de Mareazulo, existe una curiosa cavidad, cuyo nombre ha sido en ocasiones erróneamente presentado como Mareazulo, Mariazulo o Marizulo, por confusión con la conocida cueva-sifón, no muy lejana.
Hasta dicha cueva de Aretxarro acudió en 1930 el antropólogo J. M. Barandiaran, guiado por el secretario municipal de Okondo y otros más. Hallaron en ella un cráneo y otros diversos huesos que, a decir del sacerdote arqueólogo, correspondían a un enterramiento de fines del Neolítico. Un mes más tarde el Juzgado de Llodio reclamó aquellos vestigios humanos, temeroso de que pudieran ser los restos de cualquier otro muerto. Una vez aclarado el malentendido, el famoso cráneo se llevó a Vitoria. Hoy se encuentra desaparecido.



J. M. Barandiaran (1889 - 1991)



cueva del conejo

Haitzulo horren izena, izandako bertako jabe baten izengoititik omen dator. Behinola handiagoa zen harpea baina Gerra Zibilean dinamitaz suntsitu omen zen arma-biltegi edo babesleku moduan erabil ez zedin.
Herri kondairen arabera, han andre mairu bat, oso ederra, bizi zen. Ileak apaintzen egoten zen zuloaren aurrean, urrezko orrazi batekin.
Behin batean, Aspuru baserriko gazte batek orrazia lapurtu zion. Biraoa egin zion mairu-sorginak "Dame el peine, leré, que si no te mataré" esanez. Orduz geroztik ez zen zoritxarra falta etxe hartan. Bertako sorginari ere egokitzen zitzaion Beratza etxeko txerriak egun batez hilik agertzearena.

El nombre de dicha cavidad procede al parecer del apodo de un antiguo propietario. Antaño la cueva fue mayor pero su boca se dinamitó en la Guerra Civil (1936-39) para que no se usase como polvorín o refugio.
Dicen las leyendas populares que allí vivía una mora, muy bella. Solía pasar las horas peinándose frente a su cueva con un peine de oro. En cierta ocasión un joven de Aspuru le robó el peine y, en castigo, la bruja mora le lanzó una maldición diciéndole: "Dame el peine, leré, que si no te mataré". Desde entonces nunca faltaron desgracias en aquella casa. También se le atribuyó el hecho de que cierto día apareciesen muertos los cerdos del caserío Beratza.






Maiorga

Okondo herri aberatsa zen uretan eta basoetan. Horregatik ugariak izan ziren bertan zeuden burdinolak: Itzaga, Urrabieta, Goikoetxea, Zudubiarte, Olabeaga edo Maiorga. Gehienak XV. mendean eraiki ziren eta XIX.ean utzi, garaiko krisiak jota.
Krisi horri aurre egiteko, eraberritze lan handiak bideratu zituen Maiorgakoak, Okondon lanean iraun zuen azkena. Burdinola hau da, Arabako lurralde osoan izan zirenen artean, hoberen mantendu dena da. Bere hondakinak ikusgarriak dira.

Okondo era un pueblo rico en aguas y en bosques. Por ello coexistieron diversas ferrerías: Itzaga, Urrabieta, Goikoetxea, Zudubiarte, Olabeaga o Maiorga. La mayoría se edificaron en el XV y se clausuraron en el XIX, acuciadas por una fuerte crisis.
Para hacer frente a los malos resultados, la de Maiorga acometió unas grandes remodelaciones, siendo por ello la última en dejar de funcionar. Esta ferrería es, de entre las que existieron en el territorio alavés, la que mejor se ha conservado. Sus ruinas son espectaculares.





atxondo

Okondoko udaberrietan estreinakoz ernaltzen zen zuhaitza Atxondoko haritz entzutetsua zen. Bere hosto berde berriak ibar osoan gailentzen ziren.
Haritzaren emankortasun horri loturik, erritual batzuk zeuden, oraindik okondoarren oroitzapenean iraun dutenak. Aspaldi, haritz horretara joaten ziren erditzear zeuden emakume haurdunak edota amak beren seme-alabekin, kasu bietan, haritz haren bizitasun eta indarra, bereganatzeko. Haritza oso ezaguna zen eta inguruko herrietakoak ere hara joaten ziren haitzaren mesedea lortzeko. Urte askotan, jaia egin zen zuhaitz maitatuaren inguruan.

El árbol que primero brotaba en las primaveras de Okondo era el célebre roble de Atxondo, destacando sobre todo el valle el verdor de sus nuevas hojas.
Aquello era interpretado como signo de gran fertilidad y vigor y por ello se realizaban junto a él ciertos rituales populares, aún bien recordados por los okondoarras. Solían acudir al mágico árbol mujeres embarazadas próximas al parto o madres con sus hijos/as. Pretendían con la visita que el roble transmitiera su vitalidad y fortaleza a los pequeños. Tal era su reputación que incluso acudía gente de otros municipios en busca de sus beneficios. Durante muchos años se celebraron fiestas en torno al querido árbol.



antobe

Okondon sagardoa ekoizten zen, kopuru handietan gainera. Mendeetan zehar, edari herrikoena eta preziatuena izan zen. Horri loturik eta oso adierazgarria, 1581 urteko Okondoko salaketa-agiri batean jasoa dagoena, Antobe iturri eta errekan lihoa beheratzen jartzeagatik. Hori egitea debekatuta omen zegoen bertatik herritarrek edaten zuelako, txiroa izanik sagardoa edateko dirurik ez zutelako eta ur kutsatua edan izanagatik kaltetzen eta gaixotzen zirelako, omen.
Jose Pablo Ulibarri (1775-1847) euskaltzale okondoarrak ere, esaten zuen tokiko sagardoa zela kanpotik sartzen hasia zen ardo arrotza baino "yrubider" hobea. Bere esanetan, ardoa edanez "gorputzac dira chikerrac eta alferrac" baina "sagar ardoa" hartuz gero "dira ederrac, andiyac eta indersuac". Hain zen preziatua sagardoa...

En Okondo se produjo sidra, en grandes cantidades además. Fue durante siglos la bebida más popular y apreciada. Al respecto, es muy ilustrativa la denuncia interpuesta en 1581 en Okondo por echar linos en la fuente y arroyo de Antobe, algo que estaba expresamente prohibido ya que «muchas personas beben de él a falta de sidra y ser pobres y reciben mucho daño y se enferman de ello».
También el vascófilo okondoarra Jose Pablo Ulibarri (1775-1847) defendía la sidra local frente al vino que había comenzado a introducirse desde fuera. Decía de la primera que era tres veces ("yrubider") mejor que el segundo. En su opinión, bebiendo vino los cuerpos quedaban pequeños y flojos ("gorputzac dira chikerrac eta alferrac") mientras que con la sidra ("sagar ardoa") resultaban hermosos, grandes y robustos ("dira ederrac, andiyac eta indersuac"). Tal era el aprecio hacia la sidra...



©Testu eta argazkiak: FELIX MUGURUTZA MONTALBAN

Aireliko argazkia: 2009-04-23 eta 2009-05-29 egunen bitartean egindako hegaldia / Foto aérea: vuelo efectuado entre las fechas 23-04-2009 y 29-05-2009

00 OKONDO Ortofoto.indd 1 13/05/11 6:40